

UDALEKUAK 2017
LH 6LH telefonoa (Nekane)  685 323 040 (9:00-14:00)udalekuak.oartzun@gmail.comwww.gazteoiartzun.net / www.oartzuarrak.org

| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
|---|---------------------------------------|---|---|---|
| ONGI ETORRIA | GARBIGUNERA BISITA | BERTSO JOLASAK + PETRA LEKUONA | IPUIA IGERILEKUA | ERREKA* + KOMETAK AIRERATU |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 (1.hamabostaldia bukatu) |
| IPUIA IGERILEKUA | KALE ARTELANAK | LABORE | SAHARA EGUNA +IPUIA IGERILEKUA | FLASHMOB GRABAKETA** +AGURRA |
| 17 (2. hamabostaldia hasi) | 18 | 19 | 20 | 21 |
| BERRIEI ONGI ETORRIA JANTZIAK ERALDATZEN | ERREKA* (erreka garbiketa) | ERREKAKO ZABORRA IKUSGAI | IPUIA IGERILEKUA | UR JOLASAK *** |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| ERREKA* | UDALEKURIK EZ | SOINUENEA | IPUIA IGERILEKUA | ERALDATUZ AGURTU |

OHARRAK:

* Errekan ibiltzeko oinetako egokiak ekartzea komeni da.

** Grabaketarako baserritar gona beltza+kamiseta beltza ekarri behar da.

*** Bainujantzia eta aldatzeko arropa ekarri behar da.

ARAUTEGIA

- ▶ Orduategia (9:30-13:30) errespetatzea eskatzen da.
- ▶ Udalekuetan zehar ahalik eta ohar gutxien banatuko ditugu. Beraz, plangintzatutako ekintzen gogorazpenik ez dugu bidaliko. Horregatik, kontuan hartu igerilekua eta erreka jartzen duenetan beharrezko gauzak ekartzea eta kamisetak sortzen jartzen duen egunerako kamiseta bat ekartzea. Plangintzan aldaketak ematen direnetan soilik bidaliko dugu oharra HHn eta LH1en. LH2tik aurrerako aldaketak hurrei ahoz jakinaraziko dizkiegu. Bestalde, egunero www.gazteoiartzun.net eta www.oiartzuarrak.org blogetan hurrengo eguneko mailaz mailako planaren berri emango dugu.
- ▶ Urtebetetzeak janaririk gabe ospatuko ditugu. Beraz, ez ezer ekartzea eskertuko genizueke.
- ▶ Udalekuetara gurpil gainean (bizikleta, patinetea,...) etortzeko aukera izango da. Eskura izango dugu bizikleten aparkalekua.
- ▶ Haur bakoitzak bere irudia babesteko eskubidea du, beraz, denon ardura da argazki eta grabaziorik ez egitea
- ▶ Haurrak jostailurik, dirurik, mugikorrik, kamerarik ez ekartzea eskatzen da.
- ▶ Haurrak udalekuetako ordutegian atera beharko balu orri bat betetzea eta sinatzea eskatuko da.
- ▶ Ez dugu botikarik emango.
- ▶ Autobus geltoki bakoitzeko ordutegia errespetatzea eskatzen da, bai goizean autobusean uzteko orduan baita eguerdian jasotzekoan ere. Ordutegi zehatza guraso bileran zabalduko dugu. Baita aurretik aipatutako blogetan ere.
- ▶ Hamaiketarako denbora tarte bat utziko dugu egunero. Familiaren esku janaria ekarri edo ez.